

# Hizkuntzak eta gatazkak, testuinguru anitzetako hizkuntza eta identitate politikak

**Beñat Garaio Mendizabal**

*Soziolinguistika ikerlaria, Eusko Ikaskuntzako*

*"E<sup>3</sup>: Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak"*

benyat@garaio.eus

Hizkuntza gatazkak esparru lokalean aztertzeke hainbat saiakeraren ostean eta han-hemenka azaldutako liburu eta kongresu batzuk tarteko, Londreseko SOAS unibertsitateak *"Language and Conflict: Politics of Language and Identity across Contexts"* ekimena antolatu zuen iragan maiatzaren 20an. Hain zuzen ere, HRELP egitasmoko<sup>1</sup> arduradunetako bat den Julia Sallabank eta Birgül Yılmaz doktore kurduak antolatu zuten, John Benjamins Publishing argitaletxearen eta SOAS unibertsitatearen babesean.

Kongresu honetan landu zena Euskal Herrirako interesgarria zela iritziz, bertan ikusi eta ikasitakoa ondorengo lerro hauetan partekatuko da.

Esan behar da, aldi berean bi komunikazio zeudela<sup>2</sup> eta batzuetan, tamalez, gustuko komunikazioak galdu beharrean izan ginela.

Kongresua bi antolatzaileen azalpen labur batekin hasi ondoren, lehenengo aditu bereziaren hitzaldiak eman zion hasiera ofiziala ekitaldiari. Horrela, HILLARY FOOTIT Reading Unibertsitateko ikertzaileak hainbat GKE britainiarren hizkuntza tratamendua aztertu zuen, bereziki ingeles hiztunak ez diren eta gatazkan dauden herrialdeetan duten hori.

Izan ere, Oxfam-en kasua izan zuen batik bat aipagai, argudiatuz azken garaiotan nagusi den ‘ingelesaren neutraltasuna’ gailendu dela hemen ere. Baina denborarekin konturatu dira 1) laguntza interes-guneetatik urruntzen ari direla eta Oxfam-eko egoitza nagusia dela sorgune nagusia, 2) beraien komunikazioaren eraginkortasuna apaltzen ari dela beraien hizkuntza-politika dela eta, eta 3) langile eta boluntario on askoak bidean gelditzen ari direla ingelesez ez dakitelako.

Ondoren, egile honen txanda izan zen eta bere aurkezpenean “Euskararen gatazkarik ba al dago?” gaia jorratu zuen, euskararen inguruko diskurtso gatazkatsuen azterketa kritikoetatik abiatutako lana, alegia. 16 pertsona bertaratu ziren aurkezpen honetara eta hainbat galdera izan ziren 10 minutuko tarte horretan, bereziki gatazka armatuak hizkuntzaren gaineko diskurtsoetan izandako eragina eta euskararen babes ofiziala hizpide.

ROBBIE PENMAN-ek gatazka maputxea izan zuen hizpide, eta aretoa txiki gelditu zen. Gatazka hau estatuaren, bertako eliteen eta nekazari eta egur ustiaketa handien, alde batetik, eta bestalde, maputxeen, hauen jarraitzaileen eta euren burua maputxe bezala identifikatzen duten horien arteko norgehiagoka zela azaldu zuen, lehenik eta behin. Testuinguru horretan, bi alde horien erdian akademia, hizkuntzaren biziberri-zearen aldeko mugimendua eta maputxe ikasleen federazioa daude.

Maputxeen kasua berezia zela esan zuen hizlariak, argudiatuz maputxeen erresistentzia izan dela Hegoamerikan luzeena, azken mendean lortu baitzuen Txileko estatuak (eta ez espainiarrek) gutxiengo hau konkistatzea.

Normalean protestak, lurren berreskuratzea, maputxeen erasoak eta polizia errepresioa izan ohi dira, eta talka horien jatorria, berriz, ura, lurra, gerra eta maputxeen kriminalizazioa ei dira.

Izan ere, maputxeak terroristak dira Txileko agintarien arabera eta ETA, FARC eta abarrekin lotzen dituzte maiz. Are gehiago, irailaren 11ren ondoren terrorismoaren aurka sortutako diskurtso globalaz jabetu dira Txileko agintariak, estrategia terroristak erabiliz herri maputxearen aurka.

Hizkuntza gatazkari dagokionez, hizkuntzaren ofizialtasunaren aldeko aldarria 2014an hasi zen, Mapu-ko bi komunitan mapudungun-a ofiziala bilakatu zen arte. Baina garapen apala du ofizializazio honek gaur egun, eta adibidez, oraindik ofiziala den tokietan ez dituzte kartelak mapudungunean jarri.

---

***Ez da  
hizkuntzaren  
inguruko  
gatazkarik sortu  
zeren gero eta  
erakunde publiko  
gehiago daude  
hizkuntzaren  
aldeko ekimenak  
antolatzen.***

---

**Batera aipatu  
zuen hizkuntza  
eskubideak  
lurralde  
esparruan  
ematen direnez  
eskualde  
horretatik at  
dauden hiztunak  
jokoz kanpo  
gelditzen direla.**

Zentzu honetan, Penman-ek dio Maslowren Beharren Hierarkia ikusten duela testuinguru honetan, hizkuntzaren biziberritzea beste behar batzuen ondoren baitator.

Egilearen ustez, mapudungun-aren biziberritzea gatazkatsua izan daiteke edo ez, ikuspegi ezberdinak kontuan hartuz. Alde batetik, espero dezakegu baietz, tabooa dela hizkuntzaren gaia gatazkatsua delako eta ideologia ele- eta kulturabakar indartsua dagoelako gatazkaren bi aldeetan. Bestalde, eta agian gaur egun ikusi daitekeena hauxe da, ez da hizkuntzaren inguruko gatazkarik sortu zeren gero eta erakunde publiko gehiago daude hizkuntzaren aldeko ekimenak antolatzen. Are gehiago, hizkuntzaren aldeko manifestazioetan ez da errepresiorik egon eta komunikabideen tratamendua nahiko baikorra izan da.

Mapudungun-aren biziberritzea bermatzeko honela amaitu zuen egileak: “Lehenik gatazka osoa konpondu behar da eta gero hizkuntza biziberritzen saiatu, zeren komunitaterik gabe ez goaz inora. Izan ere, ofizialtasun horren implementazioak arerioak ditu, bai komunitate barruan eta baita kanpoan ere eta horien aurkaritzarekin zaila izango da”.

Publikoan zegoen batek galdetu zion estrategia hutsa al den hizkuntza ofizialtasuna Txileko zuriek ere defendatzea, eta Penman-ek erantzun zuen bazitekeela. Edonola ere, gaineratu zuen maputxeek hizkuntzaren egoera kezagarria gatazka globalaren testuinguruan sartzen dutela.

Ondoren, Julia Sallabank-ek galdetu zion orain maputxe asko Santiagon bizi direla eta zein tratamendu izan behar duten horiek. Galderarekin batera aipatu zuen hizkuntza eskubideak lurralde esparruan ematen direnez eskualde horretatik at dauden hiztunak jokoz kanpo gelditzen direla. Robbiek erantzun zion, ordea, diasporan hizkuntzaren egoera ez dela ona. Gainera, hizkuntza ezin omen da irakatsi Txileko hezkuntza-sisteman eta murgiltze-eredua izatea pentsaezina dela gaineratu zuen, are gutxiago Mapu-tik kanpo.

Lehenengo atsedenaldiaren ostean Ingalaterran bizi diren etorkinen hizkuntza erreperitorioa nola ikusia den azaldu zuen ANDREAS MUSSOLF-ek. Egoera hobeto ulertzeko honako aldagaiak aipatu zituen egileak, a) hizkuntza ikasi beharra dago hara joateko, b) etorkinek beharra omen dute asimilatzeke, d) kanpoan dauden britainiarrek ez dute bertako hizkuntza ikasi nahi, e) EB vs ez-EB etorkinek duten hizkuntza gaitasunaren arteko alderaketa egiten da herrialdean bertan, f) beraien hizkuntza irakasteak dakartzan kostuak eta gastu horien erantzuleak eztabaida sortzen dute eta g) itzulpengintza eta interpreteen kostuak traba gisa ikusi izan ohi dira.

Berak aztertutako laginetan ikusi du britainiarrek uste dutela etorkinek ez dutela hizkuntza ikasi nahi, eleaniztasuna eta kultur arteko komunikazioa txarra dela herrialdean eta Britainia Handiaren britainiartasuna kolokan dagoela. Horren aurrean, dauden diskurtsoek bi joera dituzte: 1) salaketa eta 2) ekintzarako deia

Bukatzeko, egilearen ondorioak honakoak izan ziren:

- kultura nahasketa baino, nahiago da etorkin kopurua jaitea
- britainiarrek etorkinekin izan dituzten elkarrekintza (txarrak) aitzakia dira bertako kulturak duen mehatxua salatzen
- hizkuntzarekin lotuta dauden arazoak konpontzeko elebakartasunera jo nahi da
- hemendik aurrera aurreiritzi eta uste oker horiek identifikatu eta horien gainean lan egin beharra dago

Bazkaltzeko tartearen ostean ZOË MARRIAGE gatazken konponketan aditua den SOAS-eko irakaslearen txanda izan zen, eta hitzaldi honek ere 'estatus' berezia zuenez, Footit-ek emandakoaren antzera, hiru ordu laurdenean musika praktika batzuk gatazkaren ezaugarriak nola azaleratzen dituzten azaldu zuen luze eta zabal. Batik bat Kongoko Errepublikan Demokratikoa eta Brasileko kapoeira izan zituen hizpide. Bi kasuetan antzeko joerak topatu ditu: musikari batzuk erregimenaren alde lerrotatzen dira beraien bizimodua eta ospea hobetzeko eta musika-genero horien esentzietatik urruntzen dira; beste egile batzuk, aldez, askoz jardun subertsiboago eta aldarrikatzaileago bat dute, beraien aukera eta mehatxuekin. Azken hauen kasuan gizarte xehearen sentimenduak azaleratzeko baliabide bat bilakatzen dira eta bake liberala delakotik, hau da, inposatutako baketik, urrundutako jarrera bat agertzen dute.

Ostean Chefena Hailemariam-ek Eritreako hizkuntza politika izan zuen aipagai. 4-5 milioi biztanle dituen herrialde txiki honetan 9 hizkuntza-komunitate omen daude, baina ofizialak bi dira: tigrinya, talde etniko nagusiaren hizkuntza, katolikoak; eta arabiera, gainerako talde etnikoen hizkuntza liturgikoa. Herrialdea gatazka batean murgilduta dago eta biztanleak beldur dira azkenaldian jazotzen ari den arabiartzeak ez ote duen egonkortasun ahul hau lehertuko. Izan ere, zein funtzio du arabierak Eritrean? Funtzio bateratzailea edo zatitzailea? Arabiarrek esaten dute hizkuntza hau egokia dela eritrear askoren hizkuntza bateratzailea delako eta atzerriko beste herrialdeekin harremanak indartzeko baliabidea delako, baina denak ez daude ados baieztapen horrekin.

---

***Eritrea herrialde txiki honetan 9 hizkuntza-komunitate omen daude, baina ofizialak bi dira: tigrinya, talde etniko nagusiaren hizkuntza, katolikoak; eta arabiera, gainerako talde etnikoen hizkuntza liturgikoa.***

**Hunan eskualde  
azpigaratua da  
eta hor bertako  
aldaera  
babesteko  
gobernuaren lana  
hutsaren parekoa  
izan da. Hor  
bertako aberats  
batzuek jarri  
dute dirua  
hizkuntzaren  
aldeko ekimenak  
abiatzeko.**

Gutxiengoak haserre daude tigrinyen gehiegizko boterearekin eta hauek “Hade libi...” mantrarekin jarraitzen dute (hizkuntza bat, bihotz bat). Dena den, aniztasunaren aldeko mezua azaleratzen hasi da eta geroz eta gehiago dira beste hizkuntza politika bat eskatzen duten eragileak (baita tigrinyak ere, Hailemariam bera esaterako).

Hau ikusita, hizkuntzen kudeaketa egokia behar da, batik bat kontutan hartuta eritrear gizartearen polarizazioa eta ugaritzen ari diren alderdi politiko arabiarrek arabierari ematen dioten garrantzia. Eragile batzuk ingelera hartu nahi dute hizkuntza ofizial neutral bezala, baina hamar urteko kolonizazio garaia kenduta, Eritreak ez du batere harremanik ingelerarekin. Beraz, zer zentzu du honek?

LINGXIA ZHOU-ren hitzaldia izan zen hurrengoa eta berak Txinako Herri Errepublikaren hizkuntza politika aztertu zuen, non %95 mandarinaren aldaera bat hitz egiten duen eta %68 ez diren gai mandarinerara ofizialaz egiteko ere. Hasteko, *fang yan* (eskualdeko edo bertako aldaera) eta *putonghua* (denon hizkuntza) kontzeptuen arteko ezberdintasuna aipatu zuen, esanez guri ezaguna zaigun “amankomuneko hizkuntza jasoaren” garrantzia handitzen ari dela, *fang yan* aldaeren aldean (aldaera batzuk debekatuta daude, esaterako).

Egile honek bertako hizkuntza ezberdinak dituen hiru eskualde aztertu zituen, hots, Shanghai, Guangdong eta Hunan, eta eskualde horietako hizkuntza politiken arteko alderaketa aurkeztu zigun. Lehenengo biak dira herrialdeko toki aberatsenak eta horrek erraztu du hizkuntzaren aldeko ekimenak abiatu izana. Dena den, arrazoa ezberdina izan da bi kasuetan, izan ere, Shanghai erregimenaren aliatu fidela da eta hor sortu den konfiantzak ahalbidetu du bertako hizkuntza aldaeraren babesa. Guangdong-ek, bestalde, hizkuntza partekatzen du Macau eta Hong Kong-ekin eta hori ikusita eta atzerriko eragina ekiditearren, batik bat Hong Kong-eko telebista saioena, Txinako gobernuak kantonera baimendu du bertako komunikabideetan (hezkuntzan ez, ordea).

Hunan eskualde azpigaratua da, ordea, eta hor bertako aldaera babesteko gobernuaren lana hutsaren parekoa izan da. Hor joera bestelakoa izan da, bertako aberats batzuek jarri dute dirua hizkuntzaren aldeko ekimenak abiatzeko.

Ondorioetan aipatu zuen hizkuntzen kontuak gatazka eta tentsioa sortu duela, mandarinerara sustatzea sentimendu eta batasun nazionala indartzeko erabiltzen baita (interes nazionala), baina bertako hizkuntzak eta kulturak mantentzeko eskaera dago. Halaber, aniztasunaren aldeko dis-

kurtsoa azaleratzen ari da herrialdean, bertako *fangyan* aldaeren babesaren alde. Horretan eragina dute botere ekonomikoek, gobernatzeko gaitasunak, testuinguru politikoak eta gizarte klaseak. Bukatzeko, aipatu zuen oreka bilatu behar dela nazionalismoa gehiago sustatzearen eta gizarte egonkortasuna, gobernuaren zilegitasuna eta nazioarteko preioaren artean.

Hurrengo hitzaldia Andrés Napuri perutarrena izan zen, zeinek azken mende-erdi honetan Peruk Amazoniako hizkuntzekin izan duen hizkuntza politika aztertu zuen. Horrela, aipatu zuen amazoniarrak oraindik ere mespretxatuak direla, esanez atzerakoiak direla, herrialdetik at bizi direla, moderniarri bizkarra emanda, eta abar. Gainera, perutarrek ez dira espainiarrak baino hobeak izan Amazonaseko jendearekin, antza.

Era berean, Peru herrialde anitz bat dela argi dute, baina diskurtso-mailan argi dago hierarkia zein den: “47 mintzo daude, baina hizkuntza, berriz, bakarra”.

Halaber, 1972an abiatutako hizkuntza politikan aniztasuna lortu nahi zen eskola mailan, baina azkenean gaztelania, ketxua eta aimara izan dira plan horretan sartu direnak, ez Amazoniako hizkuntzak.

Galderen tartean momentu honetan Perun duten hauteskunde-garai honek izan dezaken eragina galdetu zitzaion, eta hizlariaren arabera, Kuczynsky hautagaia Ollanta Humala presidentearen hizkuntza politikaren aurka dago eta eskola elebiduna bertan behera utziko du, espainiartze prozesu bat abiaraziz. Fujimori beste hautagaiak, ordea, ez du adierazpen publikorik egin, baina Andrés-ek uste du Kuczynskyren norabide berdina hartuko duela. Hau honela, egoera kezkarria dela aipatu zuen.

HARRY WILLOUGHBY SOAS-eko ikaslearen aurkezpena ere interesgarria izan zen, berak hainbat eskualdeetako genozidioen eta indarkeria kulturalen eragina aztertu baitzuen. Horrela, hizkuntza gutxiak bizi-berritzeko oztopoetako bat apatia izan ohi dela esan zuen, batik batik ekintza anker batzuek eragindako gutxitze egoera izanez gero. Horrelako historia batek komunitate-traumak garatzen dituela gaineratu zuen, bereziki indarkeria erabiltzeko joera, gorpil zoroan sartzearena, eta trauma horren transmisioa. Horretaz gain, gizabanakoek isolatzeko joera hartzen dute, talde sozialen arteko ezinikusiak areagotzen dira eta enpatia izateko gaitasuna galtzen da.

---

**Peru herrialde anitz bat dela argi dute, baina diskurtso-mailan argi dago hierarkia zein den: “47 mintzo daude, baina hizkuntza, berriz, bakarra”.**

---

**Gaur egun  
asiriarren egoera  
ez da oso ona,  
izan ere, gerren  
eta EI-ren  
ondorioz  
asiriarrak ez dira  
bizi beraien  
jaioterri  
behinenetan.**

Horren aurrean, ezinbestekoa omen da pilatutako min hori askatzeko bideak jorratzea eta museo, memorial, erreportai, txosten eta abarren garrantzia aipatu zuen.

Berak, dena den, trauma horri buelta eman dioten kasu batzuk aipatu zituen, esaterako, hawaiiar, kataluniar eta euskaldunen lanerako gogoia, Guatemalako maya izaeraren indartzea, Kanbodian sortu den arte korronte berri bat eta abar.

NINEB LAMASSU Cambridgeko irakaslearen hitzaldiarekin amaitu zen kongresua, Irak-eko asiriarren egoera xede izan zuen aurkezpenarekin, alegia. Kristauak diren arren, beraien hizkuntza da beraien identitatearen ezaugarri behinena eta turkiarren genozidioa sufritu zuten hauek ere, armeniar, kurdu eta greziarrekin batera.

Asiriarren lurraldearen jabe diren lau estatuak (Turkia, Irak, Siria eta Iran, kurduak bezalaxe) beraien identitatea ezabatzen saiatu izan dira urte hauetan guztietan, hizkuntza zapalduz. Hain zuzen ere, UNESCOren arabera “nina”, “neo aramaic” edo asiriera hizkuntza “definetely endangered” arrisku-mailan dago.

Irak-eko egoeran sakondu zuen gehiago eta bertako ezegonkortasun politikoak eta konstituzio aldaketa etengabeek hizkuntzaren eta gutxiengo etnikoaren osasunean izan zuten eragina aipatu zuen. Salbuespena Baath mugimenduaren iraultzak sinatutako konstituzioa izan zen, nahiz eta gerora ikusi zen Baath-zaleen erregimena bermatzeko trikimailua izan zela. Are gehiago, beraien izena kendu eta azuria deitu zitzaaien (“kristauak diren arabiarrak”) eta siriakera hizkuntza defendatzen hasi ziren agintariak, inork hitz egiten ez duen asiriarren hizkuntza liturgikoa, alegia.

Gaur egun asiriarren egoera ez da oso ona, izan ere, gerren eta EI-ren ondorioz asiriarrak ez dira bizi beraien jatorrizko jaioterrietan (Mosul eta Ninive, adibidez).

Galderen tartean asiriar diasporaren garrantziaz galdegin zitzaion eta berak Australiako kasua aipatu zuen: asiriar asko Sidneyn bizi dira eta beraiek ordaindu dituzte ireki berriak diren eskola batzuk. Beste galdera bat Irak-eko turkmeniarren egoerari buruzkoa izan zen eta Nineb-ek erantzun zuen turkmeniar eta asiriarrak babes eta egoera berdintsua dutela, baita historia ere: Sadam-en garaian zanpatuak izan ziren, esaterako.

Bukatzeko, esan behar da giro ona egon zela bertaratu zirenen artean, 60 lagun inguru, eta denbora hori baliatu genuela elkarren berri izateko



eta elkarrizketa interesgarriak izateko. Tamalgarria izan zen jakitea azkeneko momentuan hiru hizlarik ezin izan zutela Londresera joan bisatu kontuengatik. Turkia zen bisatu horien erantzule eta horietatik bi hizlari kurduak ziren; aukera ona, beraz, beraien berri izateko. Honetaz gain, aurkezpen batzuen kalitatea duda-mudakoa izan zen, baina hizlari denek hautaketa-prozesu itsu bat pasatu behar izan zuten<sup>3</sup>, beraz, ezin esan antolakuntzaren ardura izan zenik. Bestalde, eta aurkezpenetako gaiari dagokionez, hitzaldi batzuk hizkuntza gatazketatik apur bat urrun zeuden (batik bat “key note speaker” delakoenak) eta horrek kongresuaren xedea ahuldu zuen. Dena den, kontuan hartu behar da “hizkuntza gatazkak” ez dela soziolinguistikako alor bezala hedatu, hortaz, eta korronte hau gehiago indartu ezean, ulertzekoa da gertatu zena.

Bukatzeko, aipatu behar da John Benjamins Publishing babesleak kongresuko hitzaldi hoberenekin liburu bat argitaratzeko asmoa azaldu zuela, beharbada hurrengo urtera begira, eta zalantzarik gabe mugarri interesgarria izango da SOAS-ek Londresen jarritako aleari jarraipena emateko. ●

## **OHARRAK**

1. Ikus BAT 95 unibertsitateko departamendu honi buruz gehiago jakiteko
2. Ikus hemen kongresuaren egitarau osoa: <https://www.soas.ac.uk/linguistics/events/20may2016-language-and-conflict-politics-of-language-and-identity-across-contexts.html>
3. 20 pertsona inguru gelditu omen ziren kanpoan